

SILENT DRYER

● Kanalak

Gure sekagailu isila bezeroengana iristeko kanalen bidez banatuko dugu. Lehenik, gure produktua ezagutaraziko dugu publizitate bidez, sare sozialetan eta webgune propioan, eta horrela bezeroek gure sekagailua ikusiko dute eta interesa izango dute. Bezeroek produktua baloratuko dute informazioa jasotzean, eta ondoren erosteko aukera izango dute gure denda onlinean edo dendetan. Produktua erosita, etxean jasoko dute edo dendan hartu ahal izango dute. Salmentaren ondoren, bezeroei laguntza emango diegu eta zerbitzu ona eskaintzen saiatuko gara, hala nola, arazoak konpontzea edo piezak eskaintzea. Horrela, gure sekagailua bezeroarengana iritsiko da modu eraginkorrean eta gure proposamenaren balioa transmitituko dugu.